

KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN

5
PCR posit. berri
2.312
positibo guztira*

283
hildako

*Hernanin 55, Astigarragan 20

NAFARROAN

11
PCR posit. berri
8.293
positibo guztira

503
hildako

122
ospitalizatuta

Sendatuak: EAE 16.160; Nafar. 3.751

Probintzia osoan barrena mugitu ahal izango dute gipuzkoarrek gaurtik; astigartarrek, ordu mugarik ez

Aurreneko faseari ezarritako mugak kendu ditu Eusko Jaurlaritzak, eta bigarren bizilekura joateko ere mugitu daiteke probintzian barrena. 10.000 biztanletik beherako herrietakoek, egun osoan zehar kirola egin edo paseatu dezakete.

URUMEA DESESKALATZEA

Ez da fase aldaketarik izango aste honetan, Gipuzkoan eta Nafarroan, osasun alarma egoeraren deseskalatzean. Baina zenbait aldaketa bai, izango dira. Horiek, Urumea bailararen barnean, egoera batzuk parekatzea ekarriko dute, eta beste kasu batzuetan, ezberdintasun berriak sortuko dituzte.

Batetik, gaurtik aurrera, gipuzkoarrek ere izango dute au-

tera, probintzia osoan barrena mugitzeko, kirola egiteko zein paseatzeko. Bigarren bizilekura joateko aukera ere izango da (betiere probintzia berean bada), egun batzuk pasatzera zein bertan bizitzen geratzera. Gainera, orain aukera izango da kalean 10 laguneko taldeetan elkartze-ko, bi metroko tarteak gordez.

Nafarroan dagoeneko baimenduta zegoen mugikortasun hori, baina mugatua zegoen EAEn, eta muga horiek kendu

ditu Eusko Jaurlaritzak orain.

Mantenduko direnak, lurralde guztietan, ordutegien mugak dira. Baina bada nobedade bat: Espainiako Gobernuak adierazi du, 10.000 biztanletik beherako herrietan, ordutegiak ezabatuko direla. Horrek zuzenean eragingo dio Astigarragari, eta Arano eta Goizuetari batuko zaie, ordu mugarik gabeko herrien zerrendan, gaurtik.

Elkarteetan biltzeko baimenik ez, Nafarroan

Nafarroako Gobernuak, bestalde, bertan behera utzi du elkarte gastronomikoetan zein bajertan elkartzeko baimena. Salbuespen bakarra dira, 500 biztanle baino gutxiago eta tabernarik ez duten herrietakoak. **K**



Probintzia osoan barrena kirola egin edo paseatu daiteke gaurtik, Gipuzkoan ere.

Bertan behera edo murriztuta geratu diren zerbitzuen tasak bueltatuko ditu Udalak, 102.779 euro guztira

Aste honetatik aurrera bueltatuko die ordaindutakoa herritarrei, Koronabirusaren eraginez eskaini ezin izan dituzten zerbitzuetan: Udal Euskaltegia, Musika Eskola, Biteriko ikastaroak, kiroldegia eta Kantuz gitarra eskola.

HERNANI UDALA

Bertan behera geratu dira udal zerbitzu gehienak, edo murriztu egin behar izan dituzte, COVID-19 birusak eragindako osasun alarma tarteko. Eta zerbitzu horien kuotak, herritarrei bueltatzera erabaki du Hernaniko Udalak.

Aste honetan bertan hasiko da dirua bueltatzen, eta guztira, 102.779,02 euro izango dira herritarrei itzuliko dizkienak. Zehazki, honako zerbitzuen kuotak bueltatuko dituzte, osorik edo zati batean: kiroldegikoa 1.445

herritarri (19.876 euro guztira), Musika Eskolakoa 493 herritarri (51.900 euro), Biteriko ikastarotakoa 396 herritarri (6.822 euro); Udal Euskaltegiakoa 163 herritarri (20.791 euro guztira); eta Kantuzeko gitarra ikastaroena 37 herritarri (3.388 euro).

Ikastaroen kobraketa egin zen kontu korrontean bueltatuko da, maiatzaren 22tik 25era.

Zergen ordainketak, hiru alditan egiteko aukera

Udalak gogorarazi du, bestalde, atzeratu egin dituela ibilgailuen



Musika Eskolako ikastaroen tasak bueltatuko dituzte, besteak beste.

zergaren eta Ondasun Higiezin gainera Zergaren ordainketak, «krisi honen ondorioz diru-sarrerak murriztu zaizkien herritarrei laguntzeko asmoz». Ibilgailuen zerga uztailaren 20tik irailaren 10era ordaindu ahal izango da orain, eta Ondasun

Higiezin gainera Zerga (IBIa) abuztuaren 1etik urriaren 9ra.

Gainera, ordainketa horiek behin egin beharrean, hiru alditan egin ditzakete, interesik gabe. Horretarako, eskaera egin behar da udaletxean: 943 33 70 45 telefonora deituta, 10:00etatik

14:00etara; edo emailaz idatzita bilketa@hernani.eus helbidera.

Alarma egoeran egindako kirolari buruz, galdetegia

Bestalde, Hernaniko Udalak galdetegi bat helarazi die herritarrei, jarduera fisikoarekin eta kirolarekin lotuta. Jakin nahi dute, herritarrek jarduera fisikorik egiten ari diren osasun alarma egoera honetan; zer nolako jarduerak egiten dituzten; eta zein baliabide eta zerbitzu izatea gustatuko litzaiekeen etorkizunean.

Test moduko 11 galdera dira, zenbait azpigalderarekin; eta betetzea eskatu die herritarrei, «aurrera begira zein pauso eman zehazten joateko».

Hauze da galdetegia erantzuteko helbidea, euskeraz zein gaztelaniaz: labur.eus/RXr3p. **K**

FUNERARIA ORBEGOZO BEILATOKIA

Asegururik ba al duzu?

Deitu Orbegozora

24 orduko tlfnoa.
943 33 10 20

www.funerariaorbegozo.com

HERNANI ANDOAIN ASTIGARRAGA URNIETA GOIZUETA

Zentrala - Latsunbe 7, Hernani

- * Zerbitzu partikularrak eta aseratu etxeekin
- * Erreusketak
- * Lekualdatzeak
- * Beilatoak
- * Eskelak, korroak...

ORBEGOZOZ

JANATORIO - BEILATOKIA

BRINTZA

AHOLKULARITZA - CONSULTORIA

Lan-Aholkularitza Fiskala

Aseguruak Inbertsioak

Zerbitzu Juridikoak

www.brintza.com

URBIETA KALEA 15, HERNANI

Tel: 943 33 12 67 Fax: 943 33 08 92

PEÑA

sulabe

Okindegia - Janaridenda

Eguneroko zure beharrei erantzuteko, Kale Nagusian gaude.

Kale nagusia, 19 - Tel.: 943 55 23 98

Zorionak Irati!

8 urte

Familia guztiaren partez

GAUR
Giro eguzkitsua izango dugu gaur. Goizean goiz behe-laino batzuk agertu arren, berehala garbituko du. Iparraldeko haizea ibiliko da, baina indar haundirik gabe, eta gora egingo du tenperaturak. **Min.10° / Max.20°**

BIHAR
Berdintsu jarraituko du bihar, eta eguzkia izango da protagonista. Goizean behe-laino batzuk agertuko dira berriro, eta iluntzean bero-lainoak osatu daitezke. Iparraldeko haizea ibiliko da, baina giro epelarekin segiko dugu. **Min.10° / Max.20°**

ARGITARATZAILA
DOBERA
EUSKARA
ELKARTEA

LAGUNTZILEAK

Hernaniko
Udala

Argitaratzaile
Udala

Dobera
Udala

Goizuetako
Udala

Arango
Udala

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTZAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Castilla** Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941** **Gauzez:** **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**

HERNANI
GOBIERNO VASCO

GOIZUETA
GOBIERNO VASCO

DOBERA
GOBIERNO VASCO

DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK

Udaletxeko aurrez aurreko zerbitzua martxan gaurtik, zita eskatuta

Goizeko 09:00etatik 13:00etara eskainiko dute aurrez aurreko arreta. Emailaz edo telefonoz eskatu behar da, eta segurtasun neurriak hartu.

ASTIGARRAGA UDALA

Gaur hasiko dira aurrez aurreko arreta eskaintzen, Astigarraga-ko udaletxeko zerbitzu askotan; baina horretarako, alde aurretik eskatu beharko da hitzordua, emailaz edo telefonoz.

Aurrez aurreko zerbitzu hori, goizez bakarrik eskainiko dute, 09:00etatik 13:00etara, zitarekin joanda. Hitzordurik gabe doanak, udaletxeko harrerara joan beharko du, zita eskatzera.

Zehazki, honakoetan eskatu daiteke zita, aurrez aurreko arretarako: harrera eta erregistroa (udala@astigarraga.eus edo 943 33 50 50), Udaltzaingoa (udaltzaingoa@astigarraga.eus, 943 33 52 30 edo 699 487 587), hondakinen bulegoa (hondakinak@astigarraga.eus), Gizarte Zerbitzuak (ongintza@astigarraga.eus edo 943 33 52 32), idazkaritza (idazkaritza@astigarraga.eus edo 943 33 52 34), zerga bilketa (zergabilketa@astigarraga.eus edo 943 33

52 31), hirigintza eta ingurumena (hirigintza@astigarraga.eus edo 943 33 52 41), obrak eta zerbitzuak (obraketazerbitzuak@astigarraga.eus edo 943 33 50 68), eta kultura eta euskera (kultura@astigarraga.eus edo 943 33 50 64).

Aurrez aurreko zerbitzua jasotzeko, segurtasun neurriak hartu beharko dira. Udaletxeko sarreran bertan, gel hidroalkoholkoa eta maskarillak egongo dira, eta sartzean, eskuak garbitu eta maskarilla jantzita egon beharko da uneoro. Gainera, distantzia zaindu beharko da, seinaleak jarraituz; eta karteiei eta udal langileek emandako jarraibideei kasu egin behar zaie. **K**

Goizuetako garbigunea zabalik, hitzorduariekin

Astelehen, astearte eta ostegunetan irekiko dute, baina aurrez deitu beharko da hitzordua eskatzeko: 678 364 233.

GOIZUETA-ARANO MANKOMUNITATEA

Joan den ostegunetan ireki zuen berriro Goizuetako garbigunea, Leitzakoarekin batera, Mendialdea Mankomunitateak. Zabalik egonen da astean hiru egunez, baina hondakinak bertara eramanez ahal izateko, hitzordua es-

katu beharko da, alde aurretik. Horretarako, 678 364 233 telefono zenbakira deitu behar da.

Osasun alarmak iraun bitartean egin beharko da horrela. Eta nabarmendu dute, ez dutela onartuko aurretiko hitzordurik gabeko hondakinik.

Zehazki, ondoko egun eta ordutegietan egonen da zabalik, Goizuetako garbigunea: astelehenetan, eguerdiko 12:30etatik arratsaldeko 16:30etara; astearreetan, goizeko 10:00etatik eguerdiko 13:00etara; eta ostegunetan, arratsaldeko 15:30etan ireki eta 19:00ak arte. **K**

Patxi Ruiz presoaren alde, elkarretaratzea gaur

20:30etan izango da, Plazan, presoari elkartasuna adierazi eta egoera salatzeko.

HERNANI ELKARRETARATZEA

Baimen kontuak argitu ondoren, elkarretaratzea deitu dute Hernanin gaurko, Patxi Ruiz presoaren alde. Plazan izango da, iluntzeko 20:30etan, eta ber-

tan, presoaren egoera salatu eta elkartasuna adieraziko diote.

Murcia II espetxean dago Patxi Ruiz iruindarra, eta zortzi egun daramazki gose eta egarri greban, aurreko astelehenetik, salatuz mehatxuak jaso dituela espetxeko funtzionarioen aldetik. COVID-19ak eragindako egoeraren aurrean, mobilizazioak sustatu izana leporatu diote funtzionarioek. **K**

Komunikazioa lantzeko ikastaroa, bihartik

ASTIGARRAGA AZTIFEMIAK

Formakuntza saioak antolatu ditu Aztifemiak talde feministak, datozen bost asteartearako (maiatzak 19 eta 26, eta ekainak 2, 9 eta 16), 16:00etatik 18:00etara. Online izango da, Zoom programaren bitartez; eta Harago aholkularitzak eskainiko du, emakumeei zuzenduta, komunikazioa lantzeko. Parte hartzeko, izena eman behar da, plazak mugatuak baitira: aztifemiak@gmail.com.

Tamaina haundiko tresnak, bihar goizean

ASTIGARRAGA HONDAKINAK

Martxan da berriro, Astigarragan, tamaina haundiko etxetresnen bilketa. Astearte goizetan jasoko dituzte, ohi bezala, eta honakoak utzi daitezke: altzariak, koltxoak eta somierrak, lerro zuriko etxetresna elektrikoak, telebistak, eta aparatu elektroniko txikiak.

'Axi'ren marrazkiak, Donostia Kulturaren

HERNANI MARRAZKIGINTZA

Ilustratzaileei eskainitako txokoa zabaldu du Donostia Kulturak, bere web orrian: donostiakultura.eus, Ekitaldiak ataleko Donostia Kultura ON! txokoa. Eta aurreko ostegunetan, Ainara Azpiazu Axi marrazkilari hernaniarra izan zen protagonista, bertan. *Udaberria etxealdian* izeneko lana partekatu zuen ikusleekin.

IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesiologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**



Herriko baserritarrei aitortza egin eta eskerrak emateko, osatu duten bideoa irudietako bat.

San Isidro eguneko meza, idi proba eta baserritarrei omenaldia, bertsotan

Astigarragako San Isidro jaiarekin lotutako bi bideo daude ikusgai, 'astigarraga.eus' web orrian: baserritarren omenezko bideoa, eta bertso saioa.

ASTIGARRAGA SAN ISIDRO JAIA

Ez zen ohiko San Isidro eguna izan, joan den ostiralekoa, Astigarragan. Baina ospatu nahi izan zuten, nola edo hala, baserritarrak omentzeko jaia.

Eta baita egin ere. Batetik, bertso saioa izan zen interneten, zuzenean, Onintza Enbeita, Nerea Elustondo, Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso bertsolari eskainitakoa, Agin Laburu astigartarra gai-jartzaile zela. Saio hori, astigarraga.eus web orrian ikusi daiteke orain, Aktualitatea ataleko Albisteak txokoa

sartuta. Orubete pasatzeko saioan, denetik izan zuten hizpide bertsolariak: Foru Plazako eta Zamalbideko San Isidro, idi probak eta animalistak, apustuak, baserritarrei omenaldia eta emakumeen papera, festaren ondorengo ohiko afaria Lizeaga sagardotegian...

Baserritarren omenezko bideoa, Udalak eta Goldeak

Bertso saioa antolatu ez ezik, beste zenbait ekintza ere prestatu zituzten ostiralean Astigarragako Udalak eta Goldea Elkartek, San Isidro egunerako. Horrela, bideo bat osatu zuten,

herriko baserritarren omenez; eta bertan ageri dira Lagatxagako Mari Carmen eta Antonio; Lizardi Loreakeko Lourdes, Estitxu eta Jasone; Elio-Eneko Inaxio; Larrabiko Juani eta Jose-txo; Plazetxeko Jabier eta Egoitz; Taulako Elena eta Delfin; Astibaratzeko Egoitz; eta Lizardiko Jabi. Bideo hori ere, ikusgai dago astigarraga.eus web orrian, Albisteen txokoa.

Gainera, egunean bertan, udaletxeko fatxada bereziki apaindu zuen Udalak, San Isidro eguna ospatzeko, eta hala egiteko eskatu zien Herri Eskola-ko ikasleei ere, etxeko leiho eta balkoietan: barazkiak, otarrak, baserriko tresnak, marrazkiak... ipini zituzten. Eta Foru Plazan, azkenik, barazkiekin egindako figuren erakusketa jarri zuten. **K**